

GASTROTRIP-EN FUNTSEZKO ELKARTEAK

GastroTrip-en toki berriak ezagutzea bidaiatzearen funtsezko zati bat direla uste dugu. Horregatik hainbat elkarteekin lan egiten dugu, hala nola, beste herrialdeetara bidaiatzeko, herria zeharkatzeko etab. Tokiko garraio-hornitzaileekin aliantzak sortzen espezializatzen gara, autobus konpainiekin eta Uber-ekin batez ere. Gure helburua lekualdaketa bakoitza kalitatez, modu seguruan eta erosoan bezeroentzat izatea da.

Herrian mugitzeko, adibidez, **Uber**rekin kolaboratzen dugu, kontratatutako helmugetako herrien artean garraiatzeko, hau da, gertu dagoen leku batera joan beharrekotan erabiltzen dugu. Adibidez, Santurtzin egoterakoan eta Bilbora joan nahi izatekotan, Uber enpresa kontaktatuko dugu, horra ailegatzeko.

Bestalde, joaten garen herriaren autobus konpaniekin ere kolaboratzen dugu. Esaterako, Espainian **Alsa**-ren bidez mugituko dira gure bezeroak. Frantzian **Heuliez Bus**-a erabili dezakete. Autebusekin herrialdea zeharkatu ahal dugu; berdin da non zauden eta nora joan nahi zaren, herrialdearen barruan zauden bitartean.

Beste aldetik, **hegazkinez bidaiatzeko** hainbat aireliniekin ere lan egiten dugu. Honako hauekin:

- *Iberia*
- *Vueling*
- *Qatar Airways*

Baita **gurutzaontziz bidaiatzeko** moduak ere eskaintzen ditugu, eta gehienetan honako hauekin lan egiten dugu:

- *MSC Cruceros*
- *Costa Cruceros*
- *Royal Caribbean*
- *Norwegian Cruise Line*
- *Regent Seven Seas Cruises*

GastroTrip-en gure bezeroak esperientzia ahaztezinak bizitzearen zale gara. Helmuga, abentura eta kultura gastronomiko ugari eskaintzen espezializatzen gara, eta gurutzaldi- eta aire-linearik onenekin lan egingo dugula iragarri nahi dugu. Honek gure bezeroen nahi eta beharretara egokitzen diren aukera eskusiboak eta pakete pertsonalizatuak eskaintzeko aukera ematen digu. Karibeko ibilbideetatik Mediterraneoko zeharbideetaraino, gure helburua munduko edozein tokitan aparteko bidaia bat bermatzea da.

Aurretik aipatu ditugun enpresek gurekin kolaboratzea erabaki dezakete, honako arrazoi hauengatik: alde batetik, ideia berritzaileak dituen enpresa bat gara, bidaia gastronomikoak egiteaz gain, bezero aniztasun handikoetara iristea eta haientzat bidaiak egitea saiatzeko dugu; adibidez, unibertsitarioentzako bidai merkeak.

Bestalde, gurekin lan egitean, ikusgarritasun handiagoa ematen diegu; izan ere, askotariko bidaia-agentzia batekin elkartzean, bai airelineak bai gurutzaontziak publiko berrietara irits daitezke, merkatu horretan duten esposizioa handituz. Gainera, gurutzontziek sukaldeko eskolak, dastaketak edo afari tematikoak diru gehiagoren truke eskaintzen dituzten paketeak eskain ditzakete.